Zerga-administrazioak zergapekoari helarazten dion zerga-jakinarazpena, zergapekoaren aurkako premiamendu-prozedurari ekin zaiola adierazteko egiten dena

es providencia de apremio

242

premiamendu-prozedura (4)

es procedimiento de apremio

243

proporzionaltasun-printzipio (4)

es principio de proporcionalidad

saiheste fiskal

Ik. zerga-saiheste

saiheste fiskalaren aurkako klausula

Ik. zerga-saihestearen aurkako klausula

244

salaketa publiko (4)

Zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak edo egoerak nahiz zergen aplikazioan eragina eduki dezaketenak zerga-administrazioari jakinarazteko jar daitezkeen salaketa; ez dago lotuta zerga-administrazioari lagundu beharrekin.

es denuncia pública

245

tipikotasun-printzipio (4)

es principio de tipicidad

tributu-jakinarazpen

Ik. zerga-jakinarazpen

246

zehatzeko ahalaren printzipio (4)

es principio de potestad sancionadora

247

zerga-delitu (4)

Sin. delitu fiskal (4)

Herri-ogasunaren aurkako delitua.

es delito fiscal

248

zerga-eragozpen (4)

Kontzientziak hala agindurik, zerga bat edo zerga-zati bat ordaintzeari uko egitea. Zerga biltzen duen erakundearekin edo haren politikaren batekin ados ez egotea izan ohi da arrazoia.

es objeción fiscal

249

zerga-ihes (4)

Sin. ihes fiskal (4)

Legedia urratuz zergak ez ordaintzea.

Legearen aurkako egintza denez, ondorio juridikoak ditu.

es evasión fiscal

zerga-iruzur

Ik. iruzur fiskal

250

zerga-jakinarazpen (4)

Sin. tributu-jakinarazpen (4)
Herri-administrazioak zergapekoari helarazten dion jakinarazpena.
Jakinarazpenaren helburua izan daiteke, adibidez, zerga-administrazioaren egintza baten berri ematea edo zergapekoaren zerga-egoera egiaztatzeari ekingo zaiola ezagutaraztea.

es notificación tributaria

251

zerga-saiheste (4)

Sin. saiheste fiskal (4)
Legediaren hutsuneak baliatuz zergak ez ordaintzea. Ez da, beraz, legearen aurkako egintza, eta ez du ondorio juridikorik.

es elusión fiscal

252

zerga-saihestearen aurkako klausula (4)

Sin. saiheste fiskalaren aurkako klausula (4)

es cláusula antielusión

253

zergak egiaztatzeko plan (4)

es plan de comprobación tributaria

254

zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio (4)

es regularización sin presencia del obligado tributario

2.5. Zerga-bilketa

255

akats materialak, egitezkoak eta aritmetikoak zuzentze (4)

es rectificación de errores materiales, de hecho y aritméticos

256

aldizkako epemugadun zor (4)

es deuda de vencimiento periódico

257

alikuota beherakor (4)

es alícuota decreciente

258

alikuota gorakor (4)

Zerga-oinarria aldatzean handitzen den zerga-tasa, zerga-oinarria handitzean kuotaren proportzioan baino gehiago hazten dena.

es alícuota creciente

baterakuntza fiskal

Ik. zerga-konsolidazio

259

berraztertze-errekurtso (4)

Egintza baten aurka ezar daitekeen errekurtsoa, egintza hura eman duen organoaren aurrean aurkezten dena.

es recurso de reposición

260

borondatez ordaintzeko

epe (4)

Sin. borondatezko epe (4)

es período de pago voluntario;
período voluntario

261

borondatezko bilketa (4)

es recaudación voluntaria

borondatezko epe

Ik. borondatez ordaintzeko epe

262

denbora-egozpen (4)

es imputación temporal

263

**egintza erabat deusezen
berrikuspen (4)**

Zerga-administrazioak administrazio-egintza bat deuseztat jotzeko duen ahala.

es revisión de actos nulos de pleno derecho

264

enbargo-eginbide (4)

es diligencia de embargo

265

**enbargoaren prebentziozko
idatzohar (4)**

es anotación preventiva del embargo

266

epe barruko zor (4)

es deuda no vencida

267

epe exekutibo (4)

es período ejecutivo

268

epemuga (4)

es vencimiento; día de vencimiento

269

epez kanpoko zor (4)

es deuda vencida

270

errebokatze (4)

Zerga-administrazioaren administrazio-egintza, berak emandako beste administrazio-egintza bat ondorerik gabe uzten duena. Administrazio-egintza errebokatzeko, horrek onurak ekarri behar dizkio betebeharpekoari.

es revocación

271

**errekamazio ekonomiko-
administratibo (4)**

es reclamación económico-administrativa

272

**eskubide hobeko
hirugarregotza (4)**

es tercería de mejor derecho

espezietan ordaintze

Ik. gauzatan ordaintze

273

gauzatan ordaintze (4)

Sin. gauzen bidez ordaintze (4);
espezietan ordaintze (4)

Zerga-zorra ordaintzeko modua, ondasun materialekin edo diruzkoak ez diren ondasunekin ordaintzean datzana. Herri-administrazioak salbuespen-kasuetan onar dezake ordainketa-modu hau.

es pago en especie

gauzen bidez ordaintze

Ik. gauzatan ordaintze

274

gordailu-erakunde (4)

es entidad de depósito

275

hirugarrengotza aurkeztu duen alderdi (4)

es parte tercerista

276

jabari-hirugarrengotza (4)

es tercería de dominio

jakinarazpen kolektiboko zor

Ik. taldeka jakinarazteko zor

277

jarduera salbuetsi (4)

es actividad exenta

278

kaltegarritasun-deklarazio (4)

Administrazioak interesdunen alde emandako egintza bat interes publikorako kaltegarritzat jotzea; egintza hura administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko egiten da.

es declaración de lesividad

279

kenkariaren oinarri (4)

Zergapekoak inbertitzen edo jasotzen duen diru-kopurua, kenkariak aplikatzeko erreferentzia gisa erabiltzen dena.

es base de la deducción

280

kobratu gabe (4)

es pendiente de cobro

kontsolidazio fiskal

Ik. zerga-kontsolidazio

281

kontu korrante fiskal (4)

es cuenta corriente fiscal

282

konturako ordainketa (4)

es pago a cuenta

283

kreditu kobraezin (4)

Kaudimengabezia frogatu duen zergapekoari ordainarazi ezin izan zaion zerga-zorra.

es crédito incobrable

284

kutxa-zerbitzu (4)

es servicio de caja

285

ofizioz itzultzeko

prozedura (4)

es procedimiento de devolución de oficio

okerrak zuzentzeko

prozedura

Ik. okerren zuzenketa-prozedura

286

okerren zuzenketa-prozedura (4)

Sin. okerrak zuzentzeko prozedura (4)

Administrazioak ofizioz edo interesdunak hala eskatuta errakuntza materialak, aritmetikoak eta egitatezkoak zuzentzeko erabiltzen duen prozedura.

es procedimiento de rectificación de errores

287

ondasun enbargatuen

gordailu (4)

Zerga-bilketarako organoak ondasun enbargatuak biltegitratzeko hauta dezakeen lokala, kontserbazio-baldintza egokiak izan behar dituena. Garraiatzen zailak diren ondasunen kasuan, zergapekoaren jabetzako lokaletan biltegitra daitezke ondasun enbargatuak.

es depósito de bienes embargados

288

ondasun enbargatuen

gordailuzain (4)

es depositario de bienes embargados

289

ondasun-emate (4)

Sin. ondasunak entregatze (4)

Ondasun gorpuzdunen gainean xedatzeko ahalmena eskualdatzea; eskualdatze hori ondasun gorpuzdunak ordezkatzan dituzten tituluak lagaz egin daiteke.

es entregatze de bienes

ondasunak entregatze

Ik. ondasun-emate

290

**ondasunak eta eskubideak
trabatze (4)**

es traba de bienes y derechos

291

ordaindu gabeko zor (4)

es deuda pendiente

292

ordainketa geroratze (4)

es aplazamiento de pago

293

ordainketa zatikatu (4)

es pago fraccionado

294

ordainketa zatikatze (4)

es fraccionamiento del pago

295

ordainketa-gutun (4)

Herri-ogasunak zor zaion kopurua zergapekoarengandik jaso duela adierazten duen dokumentua.

es carta de pago

organo tributu-biltzaile

Ik. organo zerga-biltzaile

296

organo zerga-biltzaile (4)

Sin. organo tributu-biltzaile (4)

es órgano de recaudación tributaria

297

sarrera bidegabean

itzulketa (4)

Sin. zor ez diren sarreraren itzulketa (4)
Zergapekoak zerga-zorra kitatzeko herri-ogasunari bidegabeki ordaindu diona berreskuratzeko prozedura.

es devolución de ingresos indebidos

298

taldeka jakinarazteko zor (4)

Sin. jakinarazpen kolektiboko zor (4)

es deuda de notificación colectiva

tributu-baterakuntzaren

araubide

Ik. zerga-kontsolidazioaren araubide

tributu-kontsolidazioaren

araubide

Ik. zerga-kontsolidazioaren araubide

tributu-zor

Ik. zerga-zor

zerga-baterakuntza

Ik. zerga-kontsolidazio

zerga-baterakuntzaren

araubide

Ik. zerga-kontsolidazioaren araubide

299

zerga-bilketako agentzia (4)

es agencia de recaudación de impuestos

300

zerga-bilketako prozedura (4)

es procedimiento recaudatorio

301

zerga-biltzaile (4)

es recaudador de impuestos

302

zerga-esleipen (4)

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren gaineko ehunekoak, zergapekoaren nahiaren arabera Eliza katolikora, xede sozialetara edo estatuaren aurrekontu orokorretara bideratzen dena.

es asignación tributaria

303

zerga-kontsolidazio (4)

Sin. kontsolidazio fiskal (4); zerga-baterakuntza (4); baterakuntza fiskal (4) Talde fiskal bateko sozietateek zergak, banaka ordaindu ordez, era bateratuan ordaintzea. Talde fiskalaren zerga-ordainketa optimizatzeke egiten da.

es consolidación fiscal

304

zerga-kontsolidazioaren araubide (4)

Sin. tributu-kontsolidazioaren araubide (4); zerga-baterakuntzaren araubide (4); tributu-baterakuntzaren araubide (4) Talde fiskal batek hauta dezakeen araubidea, talde fiskala osatzen duten erakundeek zergak banakako zerga-araubidean ez ordaintzeko erabili ohi dena.

es régimen tributario de consolidación fiscal

305

zerga-zor (4)

Sin. tributu-zor (4)

Zerga-betebehar nagusitik edo horren kontura ordaintzeko betebeharretatik ateratzen den kuota edo ordaindu beharreko zenbatekoa; egoki denean, kasuan kasuko zerga-araubideak ezarritako beste kontzeptu batzuk ere har ditzake barnean.

es deuda tributaria

zor ez diren sarrerren itzulketa

Ik. sarrera bidegabean itzulketa

306

zordunketa-agiri (4)

es talón de cargo

2.6. Zerga-figurak

307

aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga (4)

es impuesto sobre la riqueza y las grandes fortunas

308

aitorpen arrunt (4)

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpen mekanizatua edo erraztua egin ezin duen subjektu pasiboak aurkeztu behar duen aitorpena.

es declaración ordinaria

309

aitorpen erraztu (4)

es declaración simplificada

310

aitorpen mekanizatu (4)

Gipuzkoan aurkez daitezkeen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpen erraztua; subjektu pasiboaren errenta-iturri bakarra lan-etekinak, ohiko etxebizitzaren erabilera edota altxorren letren interes, dibidendu eta irabaziak direnean aurkez daiteke.

es declaración mecanizada

311

aitorpen osagarri (4)

Subjektu pasiboak bere borondatez aurkezten duen aitorpen gehigarria; aurreko aitorpena aldatzen du edo aitorpen horri zerga-egitate gehiago gehitzen dizkio.

es declaración complementaria

312

aldi baterako errenta (4)

Ordaindutako kapital baten kontraprestazio gisa zergapekoak urte jakin batzuetan aldiro-aldiro jasotzen duen zenbatekoa.

es renta temporal

313

alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas

314

ariel (4)

Zergapekoaren jarrera interes orokorretara egokitzea helburu duen ordainarazpena, normalean udal-mailakoa. Ez da dirua biltzeko egiten.

es arbitrio

315

aseguru primen gaineko

zerga (4)

es impuesto sobre las primas de seguros

aurrezkiaren likidazio-oinarri

Ik. aurrezpenaren oinarri likidagarri

316

aurrezpenaren errenta (4)

es renta del ahorro

317

aurrezpenaren oinarri

likidagarri (4)

Sin. aurrezkiaren likidazio-oinarri (4)

es base liquidable del ahorro

318

autolikidazio (4)

es autoliquidación

319

balio erantsiaren gaineko

zerga (4)

Sin. BEZ (4)

es impuesto sobre el valor añadido; IVA

320

baliokidetasun-errekargu (4)

es recargo de equivalencia

321

banakako aitorpen (4)

Sin. banakako tributazio (4)

Familia-unitate bateko kide bakoitzak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga banaka aitortzea.

es declaración individual; tributación individual

banakako tributazio

Ik. banakako aitorpen

322

baterako aitorpen (4)

Sin. baterako tributazio (4)
 Familia-unitate bateko kide guztiak
 pertsona fisikoen errentaren gaineko
 zerga batera aitortzea.
 es declaración conjunta; tributación
 conjunta

baterako tributazio

Ik. baterako aitorpen

323

batez besteko karga-tasa (4)

es tipo de gravamen medio

benetako kuota

Ik. kuota efektibo

BEZ

Ik. balio erantsiaren gaineko zerga

BGAE

Ik. borondatezko gizarte-
 aurreikuspeneko erakunde

324

biziarzteko errenta (4)

Ordaindutako kapital baten
 kontraprestazio gisa zergapekoak bizi
 artean aldiro-aldiro jasotzen duen
 zenbatekoa.
 es renta vitalicia

325

**borondatezko gizarte-
 aurreikuspeneko erakunde (4)**

Sin. BGAE (4)
 es entidad de previsión social
 voluntaria; EPSV

326

diruzko lan-etekin (4)

es rendimiento de trabajo de
 naturaleza dineraria

327

diruzko lansari (4)

es retribución dineraria

328

diruzko sari (4)

es premio dinerario

ekonomia-jardueraren etekin

Ik. jarduera ekonomikoen etekin

329

**ekonomia-jardueren gaineko
 zerga (4)**

es impuesto sobre actividades
 económicas

330

**elektrizitatearen gaineko
 zerga (4)**

es impuesto sobre la electricidad

331

errenta (4)

es renta

332

errenta orokor (4)

es renta general

333

**errentak eratxikitzeko
 araubide (4)**

es régimen de atribución de rentas

334

errentak indibidualizatze (4)

es individualización de rentas

335

etekin gordin (4)

es rendimiento bruto

336

**ez-egoiliarren errentaren
 gaineko zerga (4)**

es impuesto sobre la renta de no
 residentes

337

fabrikazio-zerga berezi (4)

es impuesto especial de fabricación

338

garagardoaren gaineko

zerga (4)

es impuesto sobre la cerveza

339

gastu ez-kengarri (4)

es gasto no deducible

340

gauzazko errenta (4)

es rentas en especie

341

gauzazko lan-etekin (4)

es rendimiento de trabajo en especie

342

gauzazko lansari (4)

Langileari diruzkoak ez diren ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak emanez ordaintzen zaion lansaria.

es retribución en especie

343

gauzazko sari (4)

es premio en especie

344

hartzeko pasibo (4)

Arlo publikoko langile baten pentsioa.

es haber pasivo

345

hiri-lurren balio-

gehikuntzaren gaineko

zerga (4)

es impuesto sobre el incremento de valor de terrenos de naturaleza urbana

346

hiri-ondasun higiezin

katastro (4)

es catastro inmobiliario urbano

347

jarduera ekonomikoen

etekin (4)

Sin. ekonomia-jardueraren etekin (4)

es rendimiento de actividades económicas

348

jarduera hasi aurreko

aitorpen (4)

es declaración previa a la actividad

349

jarduera-hasieraren edo

bukaeraren aitortpena (4)

es declaración de inicio o cese de actividades

350

jasanarazitako kuota (4)

es cuota repercutida

351

jasandako kuota (4)

es cuota soportada

352

kanon (4)

es canon

353

kapitalaren etekin (4)

es rendimiento del capital

354

karga-tasa (4)

Oinarri likidagarriari kuota osoa kalkulatzeko aplikatzen zaion kopurua, koefizientea edo ehunekoa.

es tipo de gravamen

355

kargu-uzte (4)

es cese

356

katastro-balioaren eguneratze (4)

Herri-administrazioak katastro-balio berriak finkatzeko egiten duen eragiketa; inflazioagatik katastro-balioak zaharkiturik gera ez daitezzen egiten da, koefiziente jakin batzuk aplikatuz.

es actualización del valor catastral

357

kengarritasun (4)

es deducibilidad

358

kuota efektibo (4)

Sin. benetako kuota (4)

Kuota likidoari legeak ezarritako kenkariak aplikatuz kalkulatzen den kuota.

es cuota efectiva

359

kuota likido (4)

Kuota osoari zergapetze bikoitza saihesteko kenkariak aplikatu ondoren geratzen den kuota. Kuota likidoa ezin da inoiz negatiboa izan.

es cuota líquida

360

kuota oso (4)

Tributu bakoitzarentzat araudiak ezarritako hobariak aplikatu aurretik oinarri likidagarriari karga-tasa aplikatuz kalkulatzen den kuota.

es cuota íntegra

361

landa-ondasun higiezinaren katastro (4)

es catastro inmobiliario rústico

362

likidazio-aldi (4)

es período de liquidación

likidazio-oinarri

Ik. oinarri likidagarri

likidazio-oinarri orokor

Ik. oinarri likidagarri orokor

363

luxuaren gaineko zerga (4)

Tabakoaren, ibilgailuen, bitxien eta beste ondasun batzuen kontsumoa zergapetzen zuen zeharkako zerga. Abuztuaren 2ko 1985/30 Legeak indargabetu zuenetik, balio erantsiaren gaineko zergak ordeztu du.

es impuesto sobre el lujo; impuesto de lujo

364

luxuzko gastuen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre gastos suntuarios

365

mendeko sozietate (4)

es sociedad dependiente

366

minimo salbuetsi (4)

es mínimo exento

367

oinarri likidagarri (4)

Sin. likidazio-oinarri (4)

es base liquidable

368

oinarri likidagarri orokor (4)

Sin. likidazio-oinarri orokor (4)

es base liquidable general

369

oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre sucesiones y donaciones

370

ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados

371

ondare-galera (4)

Zergapekoaren ondarearen balioan zerga-arauek etekintzat jotzen ez duen edozein aldaketa gertatzeagatik agerian jartzen den galera.

es pérdida patrimonial

372

ondare-irabazi (4)

Zergapekoaren ondarearen balioan edozein aldaketa gertatzeagatik agerian jartzen den irabazia; zerga-arauek etekintzat jotzen dutena ez da ondare-irabazitzat hartzen.

es ganancia patrimonial

373

ondarearen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre el patrimonio

374

ondasun higiezinaren gaineko zerga (4)

es impuesto sobre bienes inmuebles

375

ondasun pertsonalak (4)

Interesdunaren edo haren bizikideen erabilera pertsonalera edo etxeko beharretara bideratutako ondasunak, erabilera profesional edo enpresariala izango dutela susmarazten ez dutenak.

es bienes personales

376

ordainketa salbuetsi (4)

es retribución exenta

377

pentsio-plan (4)

Aurreikuspen-sistema pertsonala, borondatezkoa, eta Gizarte Segurantzaren osagarria izan daitekeena; haren bitartez, pertsona batek ekarpen konstanteak edo aldakorak egin eta ordainetan errentak edo kapitalak jaso ahal izaten ditu erretiro, biziraupen, alarguntza, zurtzasun edo baliaezintasuneko kasuetan.

es plan de pensiones

378

pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga (4)

Sin. PFEZ (4)

es impuesto sobre la renta de las personas físicas; IRPF

379

pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren ziurtagiri (4)

es certificado de retenciones e ingresos a cuenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas

PFEZ

Ik. pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

380

pizgarri fiskal (4)

Sin. zerga-pizgarri (4)

es incentivo fiscal

381

sortutako kuota (4)

es cuota devengada

382

sozietate nagusi (4)

es sociedad dominante

sozietate-zerga (4)

Ik. sozietateen gaineko zerga

383

sozietateen gaineko zerga (4)

Sin. sozietate-zerga (4)

es impuesto sobre sociedades;
impuesto de sociedades

384

tabako-laboreen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre las labores del tabaco

385

talde fiskal (4)

Egoitza soziala herrialde berean duten sozietate anonimoen, mugatueta eta akziokako sozietate komanditarioen multzoa, sozietate nagusi batek eta haren mendeko sozietateek osatzen dutena.

es grupo fiscal

386

tarteko produktuen gaineko zerga (4)

es impuesto sobre productos intermedios

387

zeharkako zerga (4)

es impuesto indirecto

388

zenbait garraiobideren gaineko zerga berezi (4)

es impuesto especial sobre determinados medios de transporte

389

zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga (4)

es impuesto sobre ventas minoristas de determinados hidrocarburos

390

zerbitzu-prestazio (4)

Pertsona batek profesional gisa diharduenean beste pertsona bati zerbitzu bat ematea prezio baten truke.

es prestación de servicio

391

zerga-oinarri (4)

Pertsona fisiko edo juridiko batek ordaindu behar duen zerga kalkulatzeko aintzat hartzen den abiapuntuko zenbatekoa, atxikipenik, kenkaririk edo murriztapenik gabea. Zerga-egitatea neurtu edo kuantifikatu ondoren lortzen da, dirutan zein beste edozein neurritan.

es base imponible

zerga-pizgarri

Ik. pizgarri fiskal

392

zordunketa (4)

es débito

393

zuzeneko zerga (4)

es impuesto directo

3. AURREKONTUAK

3.1. Aurrekontuen edukia

394

aurrekontu orokor (4)

es presupuesto general

395

aurrekontuko eragiketa (4)

es operación presupuestaria

396

aurrekontuz kanpoko eragiketa (4)

es operación extrapresupuestaria

397

banakako diru-laguntza (4)

es subvención individual

398

diru-laguntza izendun (4)

es subvención nominal

399

diruzaintza-geldikin (4)

Sin. diruzaintzako gerakin (4)

Herri-administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuen likidaziotik datorren geldikina. Euskal Herriko Ogasun Nagusia Antolatzeke Arauei buruz indarrean dauden legegadapenen arabera, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusia arautzeko Legean zehaztutako jardunbidearen mende jarriko dira diruzaintza-geldikinak.

es remanente de tesorería

diruzaintzako gerakin

Ik. diruzaintza-geldikin

400

erakunde autonomo (4)

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailako eta izaera publikoko entitatea, zuzenbide publikoaz araututakoa. Deszentralizazio-arabidean erkidegoaren eskumeneko jarduerak egitea du helburu.

es organismo autónomo

eskubide pribatu

Ik. izaera pribatuko eskubide

eskubide publiko

Ik. izaera publikoko eskubide

401

estatuaren diru-esleipen (4)

Estatuko aurrekontu orokorraren kontura autonomia-erkidegoak jasotako diru-kopurua; dagokion erakundearen aurrekontuetako diru-sarreraren egoera-orrian adierazten da.

es asignación del Estado

402

etendako kreditu (4)

Aurrekontu orokorraren zati diren aurrekontuetako gastuen egoera-orriaren barruan, eragiketa arruntetarako nahiz kapital-eragiketetarako edozein ordainketa-kreditu, autonomia-erkidegoko administrazio instituzionaleko beste erakunde batzuei dirua transferitzekoa. Erakunde horren egiazko beharrak zehaztu arte, ordainketa-kreditu horiek ez dira finkotzat edo behin betikotzat hartzen.

es crédito en suspenso

403

Europar Batasuneko

aurrekontu (4)

Europar Batasuneko gastua eta jarduerak finantzatzeaz gain, Batasunaren jardun politikoaren lehentasun ekonomikoak ezartzen dituen aurrekontua.

es presupuesto comunitario

404

foru-erakunde autonomo (4)

Izaera publikoa duen erakunde, zuzenbide publikoak arautzen duena; lurralde historikoaren eskumenekoak diren jarduerak deszentralizazio-arabidean gauzatzea du helburu.

es organismo autónomo foral

405

foru-erakunde publiko

enpresarial (4)

Izaera publikoa duen erakunde: prestazio-jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak ekoiztea du helburu.

es entidad pública empresarial foral

406

gastuen egoera-orri (4)

es estado de gastos

407

gastuen itzulketa (4)

es reintegro de gastos

408

izaera pribatuko eskubide (4)

Sin. eskubide pribatu (4)

Herri-administrazio baten edo haren erakunde autonomo baten titulartasuneko eskubidea, administrazio-ahala gauzatzearen ondoriozkoa ez dena.

es derecho de naturaleza privada; derecho privado

409

izaera publikoko eskubide (4)

Sin. eskubide publiko (4)

Herri-administrazio baten edo haren erakunde autonomoen titulartasunekoak diren zergen eta eduki ekonomikoen gaineko eskubidea, administrazio-ahala gauzatzearen ondoriozkoa.

es derecho de naturaleza pública

410

kapitaleko diru-laguntza (4)

Beste unitate instituzional baten kapital finkoaren eraketa gordina finantzatzeko herri-administrazioak ematen duen diru-laguntza, hartzaileak itzuli behar ez duena.

es subvención de capital

411

kauzio-aseguru (4)

Aseguratuak jasandako ondare-kalteak estaltzen dituen aseguru, hartzaileak bere legezko edo kontratuzko betebeharrak ez betetzeko arriskua estaltzen duena.

es seguro de caución

412

konpromiso-kreditu (4)

Ekitaldi batean baino gehiagotan egitekoak diren jardueren finantzaketatik eratorritako betebeharrak juridikoei aurre egiteko kreditua.

es crédito de compromiso

413

kreditu aldagarri (4)

Autonomia-erkidegoko administrazioaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian jasotako ordainketa-kreditua, behin betiko zenbatekoa kreditu hori erabakitzeko moduluen balioaren arabera ezarria.

es crédito variable

414

kreditu fiskal (4)

es crédito fiscal

415

kreditu global (4)

Autonomia-erkidegoko administrazioaren eta erakunde autonomoen aurrekontuetako diru-sarrerren egoera-orrian sar daitekeen kreditua, beste ordainketa-kreditu batzuen gutxiegitasunari nahiz aurrekontu-zuzkidurarik gabeko gastuei aurre egiteko edo kreditu gehigarrien finantzaketa ordaintzeko helburua duena.

es crédito global; crédito de pago global

416

kreditu izendun (4)

es crédito nominativo

417

kreditu-gehigarri (4)

Hurrengo ekitaldira arte atzera ezin daitekeen gastu bat egin behar denean eta aurrekontuek gastu horretarako aurrez ikusitako kreditua nahikoa ez denean herri-administrazioak onar dezakeen kreditua.

es suplemento de crédito

418

kudeaketa-kreditu (4)

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak ez diren arloetako proiektuak egiteko ordainketa-kreditua, beste erakunde publikoen funtsak jasotzeak eragindako betebeharrei aurre egiteko erabiltzen dena.

es crédito de gestión

419

kudeaketako aurrekontu propio (4)

es presupuesto propio de gestión

420

kudeaketako sarrera (4)

Autonomia-erkidegoaren eskumenekoak ez diren gastu-egitasmoak beteazteko beste herri-erakundeetatik jasotako diru-sarrera.

es ingreso de gestión

421

lurralde historikoen ekarpen (4)

Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoari bere aurrekontu-gastuetarako ematen dioten laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuko diru-sarrerren egoera-orrietan jasotzen dena.

es aportación de los territorios históricos

422

maniobra-funts (4)

es fondo de maniobra

423

merkataritzako foru-sozietate (4)

Kapitalean sektore publiko foralaren % 50etik gorako partaidetza duen merkataritzako sozietatea. Partaidetza hori zehazteko, sektore publiko forala osatzen duten gainerako erakundeek sozietatearen kapitalean dauzkaten zuzeneko edo zeharkako partaidetzak hartzen dira kontuan.

es sociedad mercantil foral

424

ordainketa-kreditu (4)

Uneko ekitaldian edo aurreko ekitaldi batean hartutako konpromisoetatik eratortzen diren gastuak finantzatzeko erabiltzen den kreditua.

es crédito de pago

425

sarrera-konpromiso (4)

es compromiso de ingreso

426

sarrerren egoera-orri (4)

es estado de ingresos

427

soberazko kreditu (4)

es crédito excedentario

428

sozietate publiko (4)

Merkataritza-sozietatea, partaide nagusi honako entitate hauetako bat duena: administrazioa, haren mende dauden erakunde autonomoak, zuzenbide publikoaren barruan sartzen diren gainerako entitateak eta, azkenik, nortasun juridikoa duten zuzenbide publikoko entitateak.

es sociedad pública

429

urterokotasun-printzipio (4)

Ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldia urte naturalarekin bat etortzera behartzen duen printzipioa.

es principio de anualidad

430

zenbatekoen balio

zenbatetsi (4)

Aurrekontuetako sarrerren egoera-orrietako zenbatekoek duten balio-mota lehenetsia.

es valor estimativo de los importes

431

zenbatekoen behin betiko

balio (4)

Aurrekontuetako sarrerren egoera-orrietako zenbatekoek izan dezaketzen balio-mota; egoera-orrietan esanbidez behin betiko gisa sailkatuta egon behar dute balio horiek, edo legeak halakotzat jo behar ditu.

es valor definitivo de los importes

432

zor publikoaren harpidetza (4)

Zor publikoaren tituluak berekin duen kreditu-eskubidea eskuratzearen truke pertsona bat zor-jaulkitzaileari dirukopuru bat ematera behartzen duen egintza.

es suscripción de la deuda pública

433

zor publikoaren kontsolidazio (4)

Epe laburrerako zorra epe luzerako zor bihurtzen duen eragiketa.

es consolidación de deuda pública

434

zor publikoaren titulu (4)

es título de la deuda pública

435

zorpetze-eragiketen diru-sarrera (4)

Sin. zorpetze-sarrera (4)

es ingresos por endeudamiento

zorpetze-sarrera

Ik. zorpetze-eragiketen diru-sarrera

436

zuzenbide pribatuko erakunde publiko (4)

Izaera publikoa duen erakunde instituzionala, herri-administrazioaren eskumenekoak diren jarduerak deszentralizazio-araubidean burutzeko helburua duena. Zuzenbide pribatuak arautzen du.

es ente público de derecho privado

437

zuzenbide pribatuko sarrera (4)

es ingreso de derecho privado

438

zuzenbide publikoko sarrera (4)

es ingreso de derecho público

3.2. Aurrekontuen egitura

439

aktibo finantzario (4)

Sin. finantza-aktibo (4)

es activo financiero

440

artikulu (4)

Aurrekontuetan sarrera-gastuen sailkapen ekonomikoa eratzen duten multzoetako bat; kapitulua, kontzeptua eta azpikontzeptua dira besteak.

es artículo

441

aurreikusitako balantze (4)

Finantzen aurreiazko egoera-orrietan, dagokion erakundeak ekitaldiaren azken egunean izango duen ondare- eta diru-egoeraren aurreikuspena jasotzen duen balantzea.

es balance previsional

442

aurreikusitako finantzaketa-taula (4)

Finantzen aurreiazko egoera-orrietako taula, eskuratzea espero diren baliabideak, haien jatorria eta aktibo ibilgetuan edo zirkulatuzailean izango duten erabilera zehazten dituena.

es cuadro de financiamiento previsional

443

aurrekontu-ekitaldi (4)

es ejercicio presupuestario

444

aurrekontu-zuzkidura (4)

es dotación presupuestaria

aurrekontuaren programaz programako sailkapen

Ik. programen araberako sailkapen

445

aurrekontuen lege osagarri (4)

es ley de acompañamiento de los presupuestos

446

aurrekontuko gastu-partida (4)

es partida presupuestaria de gasto

447

aurrekontuko partida (4)

es partida presupuestaria

448

aurrekontuko sarrera-partida (4)

es partida presupuestaria de ingreso

449

azpikontzeptu (4)

Aurrekontuetan sarrera-gastuen sailkapen ekonomikoa eratzen duten multzoetako bat; kapitulua, artikulua eta kontzeptua dira besteak.

es subconcepto

450

besteren finantzaketa (4)

Sin. inoren finantzaketa (4)

Hirugarrenen ekarpenekin egiten den finantzaketa.

es financiación ajena

451

diru-laguntza arrunt (4)

Ondasunak sortzen eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei edo erakundeei herri-administrazioak ematen dien diru-laguntza; haien prezioetan eragiteko eta/edo ekoizpenerako beharrezko lansariak ordaintzea du helburu.

es subvención corriente

diru-laguntza publiko

Ik. laguntza publiko

452

egoera-balantze (4)

Erakunde batek ekitaldi ekonomikoaren azken egunerako aurrez ikusten duen ondare- eta finantza-egoeraren berri ematen duen balantzea.

es balance de situación

453

enpresa-kontabilitateko araubide (4)

Enpresa-kontabilitateko araubidearen kontabilitateko printzipioek eta arauak eta, batez ere, Kontabilitate Plan Orokorrak eta hura garatu duten xedapenak ezarritakoa aplikatzean datzan araubidea.

es régimen de contabilidad empresarial

454

eskubide onartu (4)

Herri-administrazioak kobratu behar duen zorra, kasuan kasuko sarrera-kontzeptuaren berariazko araudiaren arabera sortutakoa.

es derecho reconocido

finantza-aktibo

Ik. aktibo finantzario

455

finantza-gastu (4)

es gasto financiero

456

funtzio (4)

Aurrekontuaren sailkapen funtzionalean gastuak multzokatzeko erabiltzen den unitateetako bakoitza.

es función

457

funtzio-talde (4)

Aurrekontuaren sailkapen funtzionalean gastuak multzokatzeko erabiltzen den agregazio-maila, digitu bakarraz adierazten dena.

es grupo de función

458

funtzionamendu-gastu (4)

es gasto de funcionamiento

459

gastu arruntetarako kreditu (4)

es crédito para gastos corrientes

460

gastu-xedapen (4)

Aurrez baimendutako gastuak zenbateko jakin batean eginarazteko hartzen den erabakia.

es compromiso de gasto; disposición del gasto

461

inbertsio erreal (4)

es inversión real

inoren finantzaketa

Ik. besteren finantzaketa

462

kapital-aurrekontu (4)

es presupuesto de capital

463

kapital-eragiketetarako kreditu (4)

es crédito para operaciones de capital

464

kapitulu (4)

Aurrekontuetan sarrera-gastuen sailkapen ekonomikoa eratzen duten multzoetako bat; artikulua, kontzeptua eta azpikontzeptua dira besteak.

es capítulo

465

kontabilitate publikoko araubide (4)

Kontabilitate-arloko merkataritza-araudian eta, batez ere, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean eta hura garatu duten arauetan ezarritako kontabilitateko printzipioak eta arauak aplikatzean datzan araubidea.

es régimen de contabilidad pública

466

kontabilitate-egitura (4)

Aurrekontu orokorretako aurrekontu bakoitzeko sarrerren eta gastuen egoera-orriek legez izan behar duten egitura.

es estructura contable

467

kontzeptu (4)

Aurrekontuetan sarrera-gastuen sailkapen ekonomikoa eratzen duten multzoetako bat; kapitulua, artikulua eta azpikontzeptua dira besteak.

es concepto

468

laguntza publiko (4)

Sin. diru-laguntza publiko (4)

Helburu publiko bat lortzeko edo interes sozial edo erabilgarria den jarduera bat bultzatzeko pertsoneri, erakunde publikoei edo erakunde pribatuei herri-administrazioaren kargura emandako edozein laguntza.

es ayuda pública; subvención pública

lurralde erkideko tributu-araubide

Ik. lurralde erkideko zerga-araubide

469

lurralde erkideko zerga-araubide (4)

Sin. lurralde erkideko tributu-araubide (4)

es régimen tributario de territorio común

470

lurraldearen arabeko sailkapen (4)

es territorialización; clasificación territorial

471

pertsonal-gastu (4)

es gasto de personal

472

programa (4)

es programa

473

programa funtzional (4)

Aurrekontuaren sailkapen funtzionalean gastuak multzokatzeko erabiltzen den agregazio-maila, hiru digituz adierazten dena.

es programa funcional

474

programen arabeko sailkapen (4)

Sin. aurrekontuaren programaz programako sailkapen (4)

Aurrekontu orokorretan ordainketa-kredituak sailkatzeko modua. Programa bakoitzaren helburuei, beharrezko giza eta finantza-baliabideei, jardunei eta horien arduradunei buruzko argibideak zehaztu behar dira sailkapen honetan.

es clasificación por programas

475

saillkapen ekonomiko (4)

Aurrekontu orokorretan gastu publikoa sailkatzeko modua. Sarreraren aurrekontuan, eragiketa arruntak, kapital-eragiketak eta finantza-eragiketak bereizten ditu saillkapen ekonomikoak, eta gastuen aurrekontuan, berriz, eragiketa arruntetarako kredituak, kapital-eragiketarako kredituak, finantza-eragiketarako kredituak eta ordainketa-kreditu globalaren funtsa.

es clasificación económica

476

saillkapen funtzional (4)

Aurrekontu orokorretan gastu publikoa sailkatzeko modua. Zehazten den antolakuntza-unitate bakoitzak garatu beharreko jarduera-motaren arabera biltzen ditu ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak.

es clasificación funcional

477

saillkapen organiko (4)

Aurrekontu orokorretan gastu publikoa sailkatzeko modua. Ezarritako antolakuntza-zehaztasunarekin aurkezten ditu esleitutako ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak.

es clasificación orgánica

478

segidako administrazio-kontrolaren printzipio (4)

Aurrekontuetako gastuen arloa antolatzen duen printzipioetako bat, prozedurako egintza bat gauzatu aurretik haren aurreko eragiketak behar bezala egin direla egiaztatzea behartzen duena.

es principio de control administrativo sucesivo

sektore publikoaren aurrekontu bateratu

Ik. sektore publikoaren aurrekontu kontsolidatu

479

sektore publikoaren aurrekontu kontsolidatu (4)

Sin. sektore publikoaren aurrekontu bateratu (4)

es presupuesto consolidado del sector público

480

transferentzia (4)

Sektore publikoko erakunde diren onuradunen kontrakturik gabe funtsak ematea.

es transferencia

tributuen foru-araubide

Ik. zergen foru-araubide

481

ustiapen-aurrekontu (4)

es presupuesto de explotación

482

zergen foru-araubide (4)

Sin. tributuen foru-araubide (4)

es régimen tributario foral

zuzenean emateko diru-laguntza

Ik. zuzeneko diru-laguntza

483

zuzeneko diru-laguntza (4)

Sin. zuzenean emateko diru-laguntza (4)

Interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa dela-eta xedapen orokor baten bidez deialdirik egin gabe eman daitekeen diru-laguntza.

es subvención de concesión directa

3.3. Aurrekontuen aldaketa-araubidea

484

aurrekontuaren doikuntza (4)

es ajuste presupuestario

485

behin-behineko finantza-egoera (4)

es estado financiero provisional

486

eskubidea segurtatze (4)

Herri-erakundeek zordunaren ondasun eta eskubideekiko berme-eskubide errealak eratzea. Zordunaren egoera ekonomiko eta finantzario larriagatik herri-administrazioaren eskubideak galtzeko, urritzeko, gutxitzeko edo ez gauzatzeko arriskuan daudela pentsarazten duten pisuzko zantzuak daudenean, eskubide horien edukia eta gauzatzea berma daitezen egiten da.

es aseguramiento del derecho

487

funtsen soberakin (4)

Ekitaldi jakin bateko aurrekontuetako helburuak betetzeko beharko ez den dirua, herri-administrazioak beste eragiketa arruntetarako edo kapital-eragiketarako erabil dezakeena.

es excedente de fondos

488

kreditu gehigarri (4)

Aurrekontua aldatzeko modalitatea, gasturen bat egiteko ordainketa-krediturik ez dagoenean edo halakorik egon arren nahikoa eta zabalgarria ez denean erabiltzen dena. Aurrekontuak aldatzeko beste modalitaterik erabili ezin denean soilik baliatzen da.

es crédito adicional

489

kreditu zabalgarri (4)

Hasieran zenbateko mugatua izan arren, ezartzen diren arauzko formalitateak betetz gero, handi daitekeen ordainketa-kreditua.

es crédito ampliable

490

kreditu-gaikuntza (4)

Sin. kreditua gaitze (4)

Aurrekontua aldatzeko modalitatea, ekitaldian lortutako diru-sarrerekin gastuen egoera-orrian ordainketa-kredituak sortzeko erabiltzen dena; sarrera horiek herri-administrazioaren aurrekontuetako sarrera-egoeran aurreikusita ez badaude edo aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badute soilik erabiltzen da.

es habilitación de crédito

491

kreditu-txertaketa (4)

Sin. kreditua txertatze (4)

Aurrekontua aldatzeko modalitatea; indarrean dagoen aurrekontuari aurreko ekitaldiko kredituak txertatzeko erabiltzen da, abenduaren hogeita hamaikan kreditu horiek betebeharrak onartuei lotuta ez badaude.

es incorporación de crédito

492

kreditua deuseztatze (4)

Gastuen aurrekontuaren aldaketa, aurrekontuko partida bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batean gutxitzea dakarrena; besteak beste, diruzaintzako geldikin negatiboa finantzatzea du helburu.

es anulación de créditos

kreditua gaitze

Ik. kreditu-gaikuntza

kreditua txertatze

Ik. kreditu-txertaketa

kredituak birbanatze

Ik. kredituen birbanaketa

kredituak birjartze

Ik. kredituen birjarpen

493

kredituaren lotura juridiko (4)

es vinculación jurídica del crédito

494

kredituen birbanaketa (4)

Sin. kredituak birbanatze (4)

es redistribución de créditos

495

kredituen birjarpen (4)

Sin. kredituak birjartze (4)

es reposición de créditos

496

ordainketa-kredituen transferentzia (4)

Administrazio publikoari edo haren erakunde autonomoei aurrekontuetan dagozkien kreditu-zenbatekoak aldatzeko eragiketa; aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan egiten da, eta ez dio aldaketarik eragiten aurrekontuen zenbateko osoari.

es transferencia de crédito de pago

497

programa-elkarketa (4)

Programa batean edo batzuetan jasota dauden sarrera eta kreditu guztiak lehendik dagoen beste programa batera aldatzea; gastuaren hasierako erabilera aldatu gabe egiten da.

es agrupación de programas

3.4. Aurrekontuak betearaztea

498

agiri bidezko justifikazioaren printzipio (4)

Aurrekontuetako gastuen arloa antolatzen duen printzipioa, prozedurako eragiketa guztiak, ordain-aginduak barne, agiri egokiekin justifikatzera behartzen duena.

es principio de justificación documental

499

